



GABRIELA

Bai, asko gustatzen zaizkit animaliak; horregatik, txakur bat daukat, baina ez nuke beste bat izango.

UXURI

Ez dut animaliarik, baina katutxo bat izango nuke



JON

Ez daukat, baina txakur bat izatea gustatuko litzaidake; maitekoren bat



SARA

Pisu batean bizi naiz; gehienez txakur txikia izango nuke, gehiagorik ez.



DAVID

Ez daukat animaliarik, baina txakurrak gustoko ditut.



ALEJANDRO

Ez, hiriaren erdigunean bizi naiz; ez da leku aproposa animaliak etxean izateko

1. Non aurki dezakezu horrelako testua?

- A- Maskota-denda baten iragarkian.
- B- Testuliburu baten "Animaliak" gaian.
- C- Maskota-denda baten erakusleihoan.
- D- Gazteei zuzenduriko aldizkari batean.

2. Alejandrori Animaliak gustatzen al zaizkio? Esan zergatik.

Bai

Ez

3. Zein da testuaren helburua?

- A- Gazteen interesen berri ematea.
- B- Gazteen arteko harremanak sustatzea.
- C- Animaliekiko errespetuaz kontzientziatzea.
- D- Etxe-abereei buruzko informazio zehatza ematea.

4. Markatu ondorengo baieztapen hauek egia ala gezurra diren. Bat eginda daukazu.

	Egia	Gezurra
Gabrielari eta Uxuriri animaliak gustatzen zaizkie.		
Jonek txakur maitekor bat dauka.		
Uxuriri eta Alejandrori, animaliarik ez izan arren, txakur handi bat izatea gustatuko litzaieke.		